

ARRAUNA

Traineru denboraldiko azken estropada El Corte Ingles banderan

Orio gaingitu beharko du San Pedrok garaipena eskuratzeko

San Pedroko Libia eta Orioko San Nikolas trainerua dira faboritoak, gaur eta bihar, Nerbioi ibaiko uretan jokatu den El Corte Ingles bandera irabazteko. Julian Osaren mutilak nagusitu dira denboraldi guztian baina Jose Luis Kortaren arraunlariak ez dute amore eman eta aurtengo denboraldiko azken bandera irabazi nahi dute.

RAMON BASALDUA / BILBO

San Juan eta Arraun Lagunakeko arraunlariak denboraldia amaitu izanak Getaria-Donostia estropada suspenditzea ekarri zuen. Horren ondorioz, gaur eta bihar Nerbioi ibaian jokatu den El Corte Ingles bandera dugu, aurtengo denboraldiko azkena.

San Pedro, Orio, Zierbena eta Santander izango dira El Corte Ingles banderako sari nagusian. Hasieran San Juan eta Arraun Lagunak ziren ohorezko txandan parte hartu behar zutenak, baina alde batetik Donostiako Arraun Lagunakekoak sailkatuta zeuden arren, denboraldia amaitutzat jo zuten Kontxa bukatu ondoren.

San Juandarrek ez zeuzkaten beharrezkoak ziren puntuak eta BBK sarian eskuratzeko itxaropena zuten. Dena den azkenean BBK estropadako antolatzaileek ez zuten San Juan gonbidatu eta horren ondorioz, Paco Prietok entrenatzen duen Erreka ontzia, El Corte Ingles saritik kanpo



Sanpedrotarrak denboraldia borobil amaitzen saiatuko dira. CARLOS VILLAGRAN

geratu da.

Aurtengo denboraldiko estropada askotan gertatu izan den moduan, Julian Osak entrenatzen duen Libia eta Jose Luis Kortak entrenatzen duen San Nikolas dira bandera eskuratzeko faborito nagusiak. Orioko lehendakaria den Iñaki Sarasuak onartu duenez, San Pedro nagusitu zaio aurtun Orioi ia estropada guztietan.

KALE ZOZKETA ERABAKIKORRA Urtero gertatzen den bezala, estropada erdia kale zozketan erabakiko da. Talde guztietako delegatuak, laugarren kalea atera nahi dute, eta bigarrena oster,

ez du inork inondik eta inora ikusi nahi. Dena den San Pedrok erakutsi du, edozein kaletatik arituta ere, Bandera irabazteko gai dela.

Santurtziko Sotera, Arkote-Bermeoko Itsastxori, Kaikuko Bizkaitarra eta Algortako Opel Karealde traineruak izango dira El Corte Ingles sarian parte hartuko duten ontziak. Jakina denez, El Corte Inglesek bi estropada antolatzen ditu. Bata bandera eskuratzeko eta bestea Bizkaiko ontzien artekoa. Lau ontzi hauek dira Bizkaiko txapelketan lehen postuetan sailkatu zirenak, kontutan izanik, txapelduna izan zen Zierbena, ohorezko txandan arituko zela.

MENDIA

Elurjausia erori baina minik gabe azpeitiarrak Everesten

Azpeitiako Everest'91 espedizioari elurjausia erori zitzaion atzo, ostirala, baina euskal mendigoizaleei ez zaie ezer gertatu. Onik atera dira, baina prestatutako plangintza lauzpabost egunetan atzeratu beharko dute. Elurjausiak australiar mendizale bat zauritu du, Valenciako espedizioiko medikuak jakitera eman duenez.

Asteartean, hilak 17, Everesteko gailurra lortzeko ahaleginetan ari diren zortzi espedizioek bilera egin zuten, hurrengo egunetarako planak aztertzeke. Hirugarren eta laugarren kanpamenduak eraikitzeke lanez mintzatu zirenean, istilu eta hase-reak ere sortu ziren talde zenbaiten



Amaia Aranzabal.

artean. Takolo 7.300 metroan geratu zen aklimatatzeko.

Pumoriko gailurra lortu zuten asteazkenean Arrieta, Lasarte, Ulaiza eta Azkonak, eguraldi oso txarra eta elur handia jasan behar izan bazuten ere. Espedizioarentzat atsedean eguna izan zen. Hurrengo egunean, osteguna, zortzi lagunak izotz jausira abiatu ziren, eta ondoren bigarren kanpamenduraino. Hortik aurrera, 6.600 metroan dagoen kanpamendu hori izan behar dute oinarritzeko.

Ostiralean ordea, Lhotsetik elurjausia erori zaie espedizioari. Une horretan Amaia Aranzabal zen aurreratuen zahoana, eta guztiek onik ateratzea lortu dute. Hala ere, espedizio guztiak bigarren kanpamenduan bildu beharra izan zuten berriz ere.

SASKIBALOIA

Baskoniak gestioak ugaritu ditu Guerra espainola dela frogatzeko

L.K.G. / GASTEIZ

Javier Guerra jokalaria espainol bezala onartzeko ACBk iragarri dituen besteritzien ondoren, kontaktuak ugaltu eta agiri gehiago lortzeko lanean dabil Baskonia azken egunetan. Talde gasteiztarak aurkeztu zituen agiriak ez zirela nahikoa argudiatu zuenez ACBk, Uruguayen Espainiak duen enbaxadarekin harremanetan jarri zen atzo Carlos Roca jokalaria agentea, Javier Guerra pibotak «1986tik duen espainoltasuna agerian» uzteko xedez.

Gainera, ACBk onespina emango ez balu, errekursoak aurkezteko prest dago Baskonia. Ezein modutan, FIBAren arautegia aplikatzekotan eta Espainian hiru urtetako erresidentzia eskatzeko baldin badiote, aukera gutxi izango luke jokalaria.


LESIONATUEN EGOERA HOBERA Taugreseko zenbait jokalariren arazo fisiokoak ziren atzoko beste gaia. Joe



Javier Guerra.

Arlaukas da Brown gehien kezkatzen duena igandean Joventutena aurka jokatu duten partiduari begira, bizkarreko min handi samarra bait du. Horrexegatik, Badalonarainoko bidaia egingo du hegazkinez gaur jokalaria iparramerikarrak, bere kideek autobusez egingo duten bitartean.

GOLFA



TXEMA OLAZABAL hondarribiarrak Epson Grand Prix golf torneoko lidergoa eskuratu zuen lehen ihardunaldia jokatu ondoren. Olazabalek 64 kolpe, zazpi parraren azpitik, behar izan zituen ibilbideko 18 zuloak egiteko. Micke McLean (65), Colin Montgomerie (66) eta Rodger Davis (66) sailkatu ziren gipuzkoararen ondoren.